

Oiartzungo udalerrian kanpinetik kanpoko akanpada egiteko lur kontrolatuen arauketarako Ordenantzak

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

82. zenbakia Data 1996-04-29 5313 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

Oiartzungo Udala

Oiartzungo udalerrian kanpinetik kanpoko akanpada egiteko lur kontrolatuen arauketarako Ordenantzak.

OIARTZUNGO UDALA Ediktua

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70-2 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/196 E. Dekretuaren bidez onetsitako Erakunde Lokalen Antolakuntza, Iharduera eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudiko 196. artikuluan xedatutakoa beteaz, eta bertan aurrikusitako ondoiroetarako, 1996ko apirilaren 16ko Bilkuran behin betikoz onaturiko Oiartzungo udalerrian kanpinetik kanpoko akanpada egiteko lur sail kontrolatuen arauketarako Ordenantzen testua osoa argiratzatzen da. Ordenantza hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen hurrengo astegunean sartuko dira indarrean. Oiartzungo udalerrian kanpinetik kanpoko akanpada egiteko lur sail kontrolatuen arauketarako ORDENANTZAK. HITZAURREA

Kanpinetik kanpo akanpatzeak gorakada jasotzen ari den iharduera dugu, beti ere naturaren gozamenarekin lotuta dagoena. Bere ugalketak Administrazioak naturarekiko erasokorrek diren elementu artifizialen erabilera mugatzea eraman du, Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Ihardunbide-dokumentuan jasotzen den erabilera onartu eta galerazietako mapan akanpadako ihardueraren debekuaren aurrikuspenatik ondorioztatzen den bezala.

Oiartzungo haranak kalitatezko ingurugiro eta paisaiak eskaintzen dituen lekua dugu, bertan gaurko baldintzak mantentzea eta babestea lehentasuna duen helburu publikoa izan behar duelarik. Publikotzat jotzen dugun helburu hori betetzeko asmoarekin, udalerrri osoan kanpinetik kanpoko akanpada debekatu eta iharduera horren eskariari zerbitzua emateko mugatzen diren akanpada-guneak arautzen ditu Udalak Ordenantza honen bidez.

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen xedea Oiartzungo udalerrian akanpada-iharduera aurrera eramateko guneak arautzea da, gainontzeko lekuetan iharduera debekatu izendatzea, eta lur-publikoaren behin-behineko okupazioagatik ordaindu beharreko prezio publikoak zehaztea ere, bide batez betetzen ez denean jarri beharreko zigorrak ezartzea ere.

2. artikulua. Izaera.

Ordenantza honek izaera arautzailea eta fiskala bateratzen ditu.

3. artikulua. Ezarpen eremua.

Ordenantza hau Oiartzungo udalerrri osoan aplikatuko da. Hala ere Ordenantza hau indarrean sartu baino lehenagotik dauden kanpin pribatuei ez zaie aplikatuko, nahiz eta beste araudi eta baimenak betearazteko Udalak bere konpetentziak mantendu.

4. artikulua. Kanpinetik kanpoko akanpadaren debeku orokorra.

Kanpinetik kanpoko akanpadaren erabilera Oiartzungo udalerrri osoan debekatzen da, lurkalifikazioa edozein izanda ere, eta ondoren esango diren salbuespenekin.

5. artikulua. Mugaturiko akanpada- guneak.

Mugaturiko akanpada-guneak aurautzen dira, Arkalen eta Auzitegi-errekaren inguruan, 1. zenbakiarekin atxikitzen den planoan zehazten diren eremuetan hain zuzen ere.

Eremu hauek bi gunetan banatzen dira, 2. planoan mugatzen den bezala, berauek «ibiltari-gunea» eta «turisten gunea» izendatuko direlarik. «Ibiltari-gunea» etxebizitza iraunkorra ez dutenentzat izango da.

«Turista-gunea» nohiz behinkako bisitariarentzat izango da, beti ere ezartzen diren denboraldizko muga eta baldintzetan.

6. artikulua. Onartutako elementuak.

Mugaturiko akanpada gunean elementu ez iraunkorren instalazioa onartuko da, kanpin-denda eta antzekoak, karabana eta horrelakoak.

7. artikulua. Mugaturiko akanpada gunean lur publikoa erabiltzeagatiko prezio publikoa.

Arkaleko «Ibiltari gunean» hileroko kuota Udal honen Gizarte Ongizateko Sailak ezartzen duena izango da.

Auzitegi Errekako «turista-gunean» 1996ko prezio publikoak honako hauek izango dira:

200 pzta./pertsoneko/eguneko.

200 pzta./ibiltari/eguneko.

Kopuru hauek Ordenantza fiskalen barnean eguneratuko dira.

8. artikulua. Akanpada mugatuaren erabileraren araudia.

Udalak, Ordenantza hau eta toki zein orokorreko araudia bete arazteko dituen zereginen egikaritzan, edozein informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai jarritako elementuei buruz, baita kokapena eta egotaldi-epari buruz. Horretarako akanpada-gunearen okupazioa arautzeko beharrezko bitartekoak ezarri ahal izango ditu, betetzen ez direnentzat isunak zehaztuz.

9. artikulua. Ordenantza ez betetzeari zigorrak.

Ordenantza honetan arautzen diren muga eta debekuak ez betetzeak espediente zigortzailea irekitzea ekarriko du, arau-hauste larrien zigorrak 1.000.000 pezetarainokoak izango direlarik eta arinenak 100.000 pezetarainokoak.

Arau-hauste larriak ondoko hauek izango dira:

Udalak eskatutako datuetan gezurrezkoak ematea.

Gehienezko egotaldi epea gainditzea.

Ez onarturiko elementuak instalatzea.

Akanpada onartzen den guneetatik kanpo akanpatzea.

Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

Arauk hausten dituzten iharduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.

Toki eta orokorreko Araudia ez betetzeagatik egindako faltak, prezio publikoa ez ordaintzea barne, arau-hauste arina kontsideratuko da.

10. artikulua. Zigor erantsigarria.

Edozein kasuan, zigortuaren eta instalatutako elementuen kanporaketa ezarri ahal izango da zigor erantsiaren moduan, udal jabetzaren erabilera espreski galeraziz.

11. artikulua. Zigortzeko ihardunbidea.

Ordenantza honen arau-hausteagatiko zigorrak Udalak ezarriko ditu, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Onarriak arautzen dituenak, eta 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 26koa, Lurraren Araubidea eta Hiriaren Antolamendua onartzen duen Testu Bateratuak, ezarritakoaren arabera.

Ordenantza honetan azaldutako arau-hausteei zigorrak ezartzeko eta erabakien aurka jar daitezkeen errekurtsoetarako ihardunbidea, indarrean dauden administrazio-ihardunbideari buruzko arauak ezarritakoa izango da.

Arau-haustea lurraren erabilera desegokia eragiten duen guztietan hirigintzako arau-hauste bezala kontsideratuko da, aipatutako Lurzoruaren Legeak ezarritako jaurbide disziplinarioa eta zigortzailea aplikatuz, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearena, eta 1398/1993 Errege Dekretuak, abuztuaren 4koa, zigortzeko ahalmenaren erabilerean Ihardunbide-Araudiarena, arautzen duten prozeduraren arabera.

12. artikulua. Indargaltzea.

Ordenantza honetan ikusitako arau-hauste eta zigorrek sei hilabetetara galduko dute indarra arinak badira, eta urtebetera larriak badira. Hala ere, lurraren erabilera desegokia erakartzen duten arau-hausteak hirigintzako legeriaren hausteen trataera izango dute, bere indargaltzea lau urtekoa izanik Lurzoruaren Legeak arautzen duen bezala.

Doakiona jakinaren gainean egonik zigortzeko ihardunbidea edota exekuziozkoa hasteak indargaltzea etengo du.

13. artikulua. Araudi mailako dokumentuak.

Ordenantza honetan 1 eta 2 zenbakiko planoak sartzen dira, beraien balioa araudia-testuaren maila berekoa izanik.

Indargabetzeko Erabakia.

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera hierarkia berdineko edo gutxigoko arauak indargabetuak geldituko dira, onartutako testu honen aurkakoak edo kontraesankorrak badira, edo bateraezinak gertatzen badira.

Azken Erabakia.

Ordenantza honen indarrean sartzea apirilaren 2ko 7/1985 Toki Jaurbidearen Onarriak arautzen dituen Legearen 701c,42. artikulua ezartzen duen arabera izango da.

Oiartzun, 1996ko apirilak 17. Alkateak. (151)(4316)